

# Zazpi euskara teknikari herriko etxeetan

2006ko urrian Euskal Herri Hegoaldeko izeneko herri elkargoan lehen euskara teknikaria lanean hasi zenetik, Iparraldean beste bost euskara teknikarik ekin diote lanari. Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) ekimenez abiatu zen proiektua eta euskararen hizkuntza politika eremuka eta sektoreka biziaraztea du helburu.

## LIERNI ALKORTA



**EUSKARAK IPAR EUSKAL HERRIKO** udal-letan ere behar eta merezi duen presentzia izan dezan, herriko etxeetan euskara teknikariak ezartzeko proiektua martxan da 2006az goerotik. EEPko Administrazio Kontseiluan, 2005eko abenduan finkatu zen Iparraldeko herri elkargoei eta hainbat hiriri euskara teknikariak ezartzeko proposamena eskaintzea eta 2006an eskualdez eskualde eginiko itzulian aukera luzatu zitzaizen denek. EEP euskara teknikarien kostuen erdia bere gain hartzeko prest agertu zen, beste erdia, aldiz, herri

elkargoek edo hirietako udalek ordaintzea zen baldintza. Eta proiektua fruituak ematen hasi da. Momentuz, zortzi eremu izan dira proposamenari baiezkoko eman diotenak: Euskal Herri Hegoaldeko, Xiberuko, Errobiko, Garazi-Baigorriko, Iholdi-Oztibarreko eta Amikuzeko herri elkargoak, Baionako hiria eta Biarritzko hiria (Hendaia bere kontura du teknikaria). Azken bi horien balio sinbolikoa handia da, bertan bizi baita Iparraldeko biztanleen ia erdia. Aldiz, EEPk ez du oraindik erantzunik jaso Bidaxuneko

herri elkargotik, Hazparneko, Angeltutik eta Errobi-Aturi herri elkargotik, nahiz eta azken horretan hausnarketan ari diren. Jean Claude Iriart EEPko zuzendariak aitortzen duenez, “balorazio aski ona egiten dugu, zeren eta hasitapenean ez genekien lekuka zein erantzun mota emango zuten. Gauzak ari dira emeki-emeki egituratzen?”. Udalak dira euskara teknikarien lanaren ardatz eta herritarrak ez dira xede nagusi gisara ulertzen. Dena den, abiapuntua sinbolikoa gerta daitekeela argi du Iriartek: “Biztanle guztiak uda-

## Galdu gabeko gudua

“Kinka txarrean da euskararen egoera, baina hala ere badakigu egiazko indar politikoa egiten bada, gudu hori ez dela galdua. Heldu diren 15-20 urteetako gudua izanen dela hori”. Euskararen inguruko kezkarri itxaropenez heltzen dio Jean Claude Iriart EEPko zuzendariak, eta “iduriz gertatzen ari den bezala, erakundeek, hautetsiek eta

gizarteak berak arazoa bereganatzen badute, 10 urteren buruan arras egoera hobea izaten ahalko da. Baina hori ez da aitzinetik idatzia”. Zentzu horretan udalen indarra bereziki garrantzitsutzat du Panpi Olaizola euskara teknikariak. “Herriko etxeek eredia erakusten badute, ni ziur naiz jendearen buruan zerbait pasako dela.

lean baitute euskara ikusten (edo ez), eta herriko etxean ez bada euskararik ikusten, nekez izango da eredugarri beste elkarte eta orokorrean biztanleentzat. Baina, horrek zein ondorio ukanen duen biztanleen eguneroko bizitzan? Hori neke da jakiten. Eragin ona dudarik gabe, baina momentuan sobera goiz da hori neurtzeko”.

Panpi Olaizola ezpeletarra da euskara teknikari gisara lanean ari den horietako bat. Aurtengo otsailaz geroztik hamaika herri hartzen dituen Errobi herri elkargoko langilea da. Hamaika herri horietatik zazpik sinatu dute EEPren hitzarmena, “dena den, ni hor naiz hamaikentzat, izenpetu edo ez”. Olaizolak argi du bere lanpostuaren lehentasunak zein behar duen izan: “Hastapenean herriko etxeen galderei erantzutea”, era berean, herri elkargoko eskolak, elkarrekin eta enpresak laguntzea ere bere betebeharra da. Otsailetik oraintsu arte frantsesetik euskararako itzulpenetan buru-belarri ibili da Olaizola, herriko etxeak apurka euren dokumentuak bi hizkuntzetan jartzeko ohitura hartzen ari diren seinale. “Hala ere, hori pixka bat kez-

kagarria zen, niretzat arranguragarria, zeren eta ikusten nituen gainerako teknikariak, denbora gehiagorekin beste gauza batzuk bultzatzeko”.

### Itzulpenetik harago

Formakuntza planak ere abiatu dituzte. “Herriko etxe batzuetan badira alfabetatu gabeko langile euskaldunak eta beraz, jadanik zerbitzu bat eskaintzen dute euskaraz, baina beste anitzetan ez dira beti euskaldunak”. Euskaraz alfabetatu gabeak eta ez dakitenak AEK-ko eskoletara bideratzen ditu euskara teknikariak. Errobi herri elkargo osoan egun 18 bat udal langile ari dira formatzen. Aurrerapauso ona dela deritzo Olaizolak, “herriko etxe guztietan izanen dira jende euskaldun batzuk zerbitzua ziurtatzeko”. Jendea apurka sentsibilizatzen ari delakoan dago eta mezu itxaropentsua helarazi du: “Aitzin pausoak egiten ari dira eta herriko etxeek agertzen dute zinez gogo bat euskarak ukan dezan bere tokia”.

“Esan beharko diezu seinaleak tintatzen dituztenei, ez dela ongi!” gisako esaldiak ere pare bat aldiz aditu behar izan ditu, ordea. Horixe omen da, ziu-

rrenik, oztopo nagusia, “betikoa, nahastea hizkuntza eta politika eta gaurko Euskal Herriaren egoera. Batzuek oraindik nahasten dute dena, eta sinpleagoa da esatea arriskutsua dela”. Hala ere, argi du horrelako iriztiak gutxiengoarenak direla.

Herriko etxetik kanpo, eta itzulpenek tarte egiten diotenerako hainbat proiektu darabiltza Panpi Olaizolak buruan. Urte amaierara begira, Olenzteroren inguruko bizpahiru ekitaldi antolatzeke nahia du. Bestalde, eskolen aurretiko eta ondorengo orduetarako jarduerak euskaraz egiteko aukera ere bermatu nahi du. Horrez gain, edozein jaialdi-edo antolatu nahi duenarentzat euskarazko saioak eskaintzen dituzten zerrenda egitea du asmo, “askotan zailtasunak izaten baitira animazio bat antolatu nahi eta jarduera hori euskaraz lortzeko”. Aurrerago begira, Nafarroa Behereko euskara teknikariak Izpuran egin bezala, Kanbo inguruko bainuetxeetan ere euskara sustatzeko planak garatzeko asmoa du Olaizolak.

### Euskal Konfederazioaren lanaren jarraipena

Orain bost urte Euskal Konfederazioak abiatutako lan ildoari eutsi dio euskara teknikarien proiektuarekin EEPk. Hain zuzen ere, Euskal Konfederazioak Ipar Euskal Herriko 40 bat herriko etxerekin izenpeturik zituen hitzarmenak. Orain, kopuru hori areagotzea lortu dute. Jean Claude Iriarten aburuz, “orain arte, hainbat udalek ez zuten nahi izan ofizialki engaiatu, baina gure proposamena marko politiko-publiko batean sartzen da, eta ohartu gara gehiago direla horri atxiki zaizkionak, ofizialki aurkeztua zelako. Nahiz eta metodoaren aldetik jarraitzen dugun Euskal Konfederazioak eraman zuen ildo beretik”. Zenbakitan, Nafarroa Beherea da horren adibide argi. EEPren proposamenaren aurretik 12 udal zeuden Euskal Konfederazioarekin lotuta, gaur egun 24 dira. ■

Babeslea: Oiarzungo Udala



Oiarzungo Udala  
www.oiarzungo.net

# OIARTZUN, UDALERRI EUSKALDUNA

Osasungintza, Lantegiak, Epaitegiak, Merkatal eta Finantza Zerbitzuak ere euskaldunduz. Euskaraz bizi nahi dugulako hamaika lan elkarrekin egiteko dugu.